a) Cuando la solicitud se fundamente en que la ejecución pudiera causar perjuicios de imposible o difícil reparación, deberá acreditarse dicha circunstancia. En este caso, de solicitarse la suspensión con dispensa parcial de garantías, se detallará la naturaleza y características de las garantías que se ofrecen, los bienes o derechos sobre los que

bideren gainean eraturiko diren, eta behar adinako titulua duen peritu batek egindako balorazioa erantsiko da.

b) Inpugnatutako egintzaren akats aritmetiko, material edo egitatezkoak alegatzen direnean etendura eskatzeko, akatsak frogatu beharko dira.

6.- Eskabideak ez baditu baldintzak betetzen, interesdunari 10 eguneko epea ezarriko zaio akatsak zuzentzeko. Alegatutako arrazoiaren frogagiriak falta badira, ez da akats hori zuzentzeko izapiderik egingo.

7.- Ondoko kasu hauetan Auzitegiak ez du eskabidea izapidetzeko onartuko:

a) Eskabidearekin batera behar diren frogagiriak aurkezten ez direnean.

b) Akatsak zuzentzeko eskatu eta jaramonik egiten ez denean.

c) Akatsak zuzentzeko eskaerari erantzun arren akatsak zuzendutzat ematen ez direnean.

d) Jarduketei erantsi zaizkien agiriak aztertirik, konpondu ezinezko edo konponbide zaileko kalteen edo akats aritmetiko, material edo egitatezkoen aztarnarik aurkitzen ez denean.

8.- Etenduraren eskaera izapidetzeko onartzen ez bada, aurkeztu ez balitz bezala izango da ondorio guztietarako. Eskaera ez onartzeko erabakiari errekurtsioa egin ahalko zaio administrazio-bidean.

9.- Eskaera izapidetzeko onartzuz gero, eteteko ondorioak sortuko dira eskaera aurkeztu zen unetik aurrera, erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta horren berri emango zaio organo eskudunari.

20. artikulua.- Betearazpena eteteko eskaeraren ebazpena.

1.- Etendurarekin batera bermeen dispensa partziala eskatzen bada eta eskaera izapidetzeko onartzen bada, Auzitegiak, ebazpena eman aurretik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko organo eskudunari txostena eskatu ahalko dio, eskaintako bermeak lege eta diru aldetik nahikoak ote diren eta berme gisa eskaintzeko moduko beste ondasunen bat ba ote dagoen jakiteko.

2.- Auzitegiak berriazko ebazpena emango du etendura onartu edo ukatzeko. Bermeen dispensa partzialarekin etendura onartzen denean, erabakian adieraziko da bermeak bi hilabeteko epean eman behar zaizkiola organo eskudunari, zeintzuk berme jarri behar diren zehaztuko da, eta ohartaraziko da etenduraren onarpena bermeen formalizazioaren menpe egongo dela.

3.- Ukapenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahalko da.

21. artikulua.- Etenduraren ondorioak.

1.- Etendurak ondorioak sortuko ditu bera eskatu zen egunetik aurrera.

2.- Lege eta Administrazio Erakundeak aldatu egin dezake etendura onartzeko emandako ebazpena, hura eman zenean kontuan hartutako baldintzak betetzeari utzi zaiola ikusten badu, edo jarri ziren bermeek balioa edo eraginkortasuna galdu dutela, edo berme gisa emateko moduko beste ondasun edo eskubide batzuk bazirela, ebazpena eman zenean ezagutzen ez zirenak.

Horrelakoetan, inguruabar berriak interesdunari jakinaraziko zaizkio eta 10 eguneko epea emango zaio bere eskubidearen aldeko alegazioak egin ditzan.

3.- Auzitegiak hilabete igaro aurretik erabakiko du: emandako etendurari bere horretan eutsiko dio edo osorik nahiz zati batean ezeztatuko du.

4.- Etendura ezeztatzeko ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahalko da.

5.- Etendura lortu duen interesdunak gero administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzen badu erreklamazioari buruzko azken erabaki edo ebazpenaren aurka, eta Administrazioa horren jakitun jartzen badu errekurtsioa aurkezteko epearen barruan, etendurari eutsiko zaio harik eta organo judicialak errekurtsioari buruzko erabakia hartu arte.

se constituirán y su valoración realizada por perito con titulación suficiente.

b) Cuando la solicitud se fundamente en que el acto impugnado incurre en error aritmético, material o de hecho, se justificará la concurrencia del error.

6.- Si la solicitud no reúne los requisitos necesarios se requerirá al interesado para que subsane las deficiencias en un plazo de 10 días. La falta de incorporación de la documentación acreditativa de la causa alegada no dará lugar al trámite de subsanación.

7.- El Tribunal decidirá la inadmisión a trámite de la solicitud:

a) Cuando a la solicitud no se acompañe documentación acreditativa.

b) Cuando el requerimiento de subsanación no haya sido atendido.

c) Cuando el requerimiento haya sido objeto de contestación pero no se entiendan subsanados los defectos.

d) Cuando no pueda deducirse de la documentación incorporada a las actuaciones la existencia de indicios de los perjuicios de imposible o difícil reparación o la existencia de error aritmético, material o de hecho.

8.- La inadmisión a trámite supondrá que la solicitud de suspensión se tiene por no presentada a todos los efectos. El acuerdo de inadmisión no será susceptible de recurso en vía administrativa.

9.- La admisión a trámite producirá efectos suspensivos desde la presentación de la solicitud, se notificará al interesado y se comunicará al órgano competente.

Artículo 20.- Resolución de la solicitud de suspensión de ejecución.

1.- Con carácter previo a la resolución, cuando la solicitud de suspensión se haya formulado en modalidad de dispensa parcial de garantías y se haya admitido a trámite, el Tribunal podrá solicitar al órgano competente del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos un informe sobre la suficiencia jurídica y económica de las garantías ofrecidas, así como sobre la existencia de otros bienes susceptibles de ser prestados como garantía.

2.- El Tribunal dictará resolución expresa que otorgue o deniegue la suspensión. En los supuestos de concesión de la suspensión con dispensa parcial de garantías, el acuerdo especificará las que deban constituirse en el plazo de los dos meses siguientes ante el órgano competente y que la eficacia de la concesión quedará condicionada a la formalización de las garantías.

3.- Contra la denegación podrá interponerse el correspondiente recurso contencioso-administrativo.

Artículo 21.- Efectos de la suspensión.

1.- La suspensión concedida tendrá efectos desde la fecha de la solicitud.

2.- El Organismo Jurídico Administrativo podrá modificar la resolución de concesión de la suspensión cuando tenga conocimiento de que no se mantienen las condiciones que la motivaron, de que las garantías aportadas han perdido valor o efectividad o de la existencia de otros bienes o derechos susceptibles de ser entregados en garantía que no hubieran sido conocidos en el momento de dictarse la resolución.

En estos supuestos, se notificarán al interesado las nuevas circunstancias para que pueda alegar lo que convenga a su derecho en un plazo de 10 días.

3.- El Tribunal decidirá en el plazo del mes siguiente si la suspensión concedida se mantiene en los mismos términos o si la revoca total o parcialmente.

4.- Contra la resolución que revoque la suspensión podrá interponerse recurso contencioso-administrativo.

5.- Si el interesado que hubiese obtenido la suspensión interponere recurso contencioso administrativo contra el acuerdo o la resolución que puso término a la reclamación, solicita la suspensión y así lo hace saber a la Administración dentro del plazo de interposición del recurso, se mantendrá la suspensión hasta que el órgano judicial adopte la decisión correspondiente.



## II. KAPITULUA PROZEDURA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK

### 1. atala. Arau orokorrak

#### 22. artikulua.- Epeak zenbatzea.

1.- Prozedura ofizioz bideratuko da, ezarritako epeak errespetatuz. Epeak ezin izango dira luzatu eta ez da beharrezkoa izango amaitu direla adieraztea.

2.- Honela zenbatuko dira epeak: dena delako egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, edo Administrazioaren isiltasunak ondorioak sortzen dituen egunaren biharamunetik hasita.

3.- Hilabeteka edo urteka zenbatzen diren epeetan, epearen azken hilean epearen hasierako egunaren baliokiderik ez bada, hilaren azken egunean bukatuko da epea. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da epea.

#### 23. artikulua.- Jakinarazpenetarako helbidea.

1.- Interesdunei eragiten edo prozedura ekonomiko-administratiboari amaiera ematen dioten egintza guztiak interesdunei jakinaraziko zaizkie eurek emandako helbidean, eta zeintzuk errekurtsio jar ditzaketen adieraziko zaie.

2.- Jakinarazpena posta ziurtatuaren bidez egin daiteke, edo berariak gaitutako funtzionario batek egin dezake. Funtzionario horrek eginbidea egingo du gertaerak jasorik uzteko eta espedienteari batuko zaio.

3.- Erreklamazioaren espedientearen interesdunak edo haren ordezkariak emandako helbide bat baino gehiago ageri badira, azken helbidean egingo da jakinarazpena.

4.- Auzitegiari ezin egotzi zaizkion arrazoiengatik jakinarazpena egiterik ez badago, bi aldiz saiatu arren, jakinarazpen-ahaleginen inguruabarrak espedientearen jasoko dira. Emandako helbidean hartzailea ezezaguna bada, edo helbidez aldatu bada, jakinarazpen-ahalegin bakarria egingo da.

Horrelakoetan interesdunari edo haren ordezkariari dei egingo zaio, ALHAOn argitaratuko den iragarkiaren bidez, Auzitegiko Idazkaritzara etor dadin jakinarazpena jasotzera, iragarkia argitaratu eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan.

Hura agertu ezean, edo epea igarotakoan agertuz gero, jakinarazpena egintzat joko da legezko ondorio guztietarako, epea amaitu eta biharamunetik aurrera.

5.- Artikulu honetan arautu gabeko guztian, jakinarazpenei buruzko administrazio arau orokorrak aplikatuko dira.

#### 24. artikulua.- Kopia ziurtatuak lortzea.

1. Interesdunek erreklamazioaren edo errekurtsio ekonomiko-administratiboaren espedientearen clauden agiri jakinen kopia ziurtatua eskatu ahalko dute, idatziz, eta horrek ez du ekarriko ezarritako epeak eteterik.

2. Norbanakoek zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eragin-kortasuna eragotzi gabe eskatuko dituzte kopia ziurtatuak. Nahi dituzten agiriak kopiatu banan-banan eskatuko dituzte, eta espediente osoaren kopia eskatzen badute, bidezkoztat jo ezean ukatu egin ahalko zaie.

3.- Idazkariak emango ditu kopia ziurtatuak, eta jarduketetan jasorik utziko da interesdunari kopiak eman zaizkiola edo ukatu egin zaizkiola.

4.- Idazkariak zilegi izango du kopiak ukatzea, 2. idatz-zatiko inguruabarrak gertatzen direnean edo informazioa isilpean gorde behar denean, indarra duten arauak betetzeko.

#### 25. artikulua.- Agiriak aurkeztea, bereiztea eta itzultzea.

1.- Erreklamazioa edo errekurtsioa bera osatzen duten idazkiak ez diren beste batzuk aurkezterakoan, interesdunek kopia bat erantsi ahalko dute eta idazkaritzak jatorrizkoa itzuliko die kopiarekin erkatu ondoren, salbu eta, agiriaren izaeragatik, behin betiko ebazpena eman arte hura itzultzea komeni ez denean.

## CAPÍTULO II PROCEDIMIENTOS ECONÓMICO-ADMINISTRATIVOS

### Sección 1ª Normas generales

#### Artículo 22.- Cómputo de plazos.

1.- El procedimiento se impulsará de oficio con sujeción a los plazos establecidos, que no serán susceptibles de prórroga ni precisarán que se declare su finalización.

2.- Los plazos se contarán a partir del día siguiente a aquél en que tenga lugar la notificación del acto de que se trate o a partir del día siguiente a aquél en que se produzcan los efectos del silencio administrativo.

3.- En los plazos señalados por meses o años, si en el mes de vencimiento no hubiera día equivalente a aquél en que comienza el cómputo, se entenderá que el plazo expira el último día del mes. Cuando el último día del plazo sea inhábil, el plazo finalizará el primer día hábil siguiente.

#### Artículo 23.- Domicilio para notificaciones.

1.- Todos los actos que afecten a los interesados o pongan término al procedimiento económico-administrativo serán notificados a aquéllos en el domicilio señalado, con indicación de los recursos que, en su caso, procedan.

2.- La notificación podrá practicarse mediante correo certificado o por un funcionario habilitado al efecto que extenderá una diligencia de constancia de hechos para su incorporación al expediente.

3.- Cuando en el expediente de la reclamación figuren varios domicilios señalados por el interesado o su representante, se notificará en el último señalado.

4.- Cuando no sea posible efectuar la notificación por causas no imputables al Tribunal, e intentado al menos dos veces, se harán constar en el expediente las circunstancias de los intentos. Se realizará uno sólo cuando el destinatario conste como desconocido o trasladado.

En estos supuestos se citará al interesado o a su representante, mediante anuncio que se publicará en el BOTHA, para ser notificado mediante comparecencia personal ante la Secretaría del Tribunal dentro del plazo de los quince días naturales siguientes a la publicación del anuncio.

Si la comparecencia no tiene lugar o se produce después de transcurrido el plazo, la notificación se entenderá realizada a todos los efectos legales el día siguiente al del vencimiento del plazo señalado.

5.- En todo lo no previsto en este artículo serán de aplicación las normas administrativas generales sobre régimen de notificaciones.

#### Artículo 24.- Obtención de copias certificadas.

1. Los interesados podrán solicitar por escrito la expedición de copia certificada de extremos concretos contenidos en el expediente de la reclamación o recurso económico-administrativo, sin que por tal motivo se vean interrumpidos los plazos establecidos.

2. La expedición de copias certificadas se solicitará por los particulares de forma que no se vea afectada la eficacia del funcionamiento de los servicios públicos, mediante petición individualizada de las copias de los documentos que se soliciten, sin que quepa formular, salvo para su consideración con carácter potestativo, una solicitud genérica sobre el contenido del expediente en su conjunto.

3.- Las copias certificadas se expedirán por el Secretario y se guardará en las actuaciones acreditación de su entrega al interesado o de la denegación de las mismas.

4.- El Secretario podrá denegar la expedición cuando concurren las circunstancias del apartado 2 o cuando se trate de información que deba permanecer reservada de conformidad con la normativa vigente.

#### Artículo 25.- Presentación, desglose y devolución de documentos.

1.- Al presentar un documento distinto de los escritos que conforman la propia reclamación o el recurso, los interesados podrán acompañarlo de una copia para que la Secretaría devuelva el original previo cotejo de la copia, salvo que la propia naturaleza del documento aconseje que su devolución no se efectúe hasta la resolución definitiva.

2.- Behin prozedura amaiturik, interesdunek eskatu ahalko dute erreklamazioa bideratzen ari zen bitartean aurkeztu dituzten frogagiriak bereiz daitezen eta itzul dakizkien. Idazkaritzak behar diren jarduketak egingo ditu, agiriaren kopia erkatua gordeko du eta itzulketa jasorik utziko du.

26. artikulua.- Prozeduraren kostuak.

1.- Eskeraerak egin edo errekurtsuak sustatzen dituztenak esku-bideez nabarmen abusatu gero, Lege eta Administrazio Erakundeak erreklamatzailerak ausarkeriaz edo gaitzuste aritu dela ulertu ahalko du, prozeduraren kostuak berari ordainarazi ahal izateko.

Ausarkeria edo gaitzuste dagoela ulertu ahalko da, bereziki, erreklamazio edo errekurtsuaren xede bakarra zerbait atzeratzea denean. Inguruabar horiek behar bezala arrazoitu behar dira.

2.- Kostuak erreklamatzailerari ordainarazten zaizkionean, zenbatekoa kalkulaterakoan, prozeduraren batez besteko kostuari, erreklamazioaren konplexutasunari eta kontuan hartu beharreko inguruabareireparatuko zaie.

3.- Kostuak ordaintzeko borondatezko epea hilabetekoa izango da gutxienez. Likidazioa jaso eta biharamunetik hasita zenbatuko da. Epe hori igarota, kostuak ordaindu gabe badaude, premiamendu-prozeduraren bidez ordainaraziko dira.

4.- Erreklamazioa osorik edo zati batean baietsiz gero, ez dira ordainaraziko prozeduraren kostuak.

2. atala. Prozedura ekonomiko-administratibo orokorra

27. artikulua.- Prozedura hasia

1.- Erreklamazio-idazkia aurkezten denean hasiko da administrazioarekiko diru-erreklamazioa. Idazkia Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari zuzenduko zaio eta sinatu egingo da. Bertan datu hauek jarriko dira: interesdunaren izen-deiturak edo izen soziala edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, erreklamazioa egin nahi zaion egintza edo jarduketa, eta jakinarazpenetarako helbidea.

Erreklamazioaren xede materiala erakusteko, inpugnatu nahi den egintzaren edo jarduketaren kopia aurkeztu ahalko da, edo, administrazioaren isiltasuna tarteko denean, aurkeztutako errekurtsua edo eskabidea.

2.- Halaber, erreklamazioa jartzeko idazkian bertan, erreklamazio-egileak bere eskubidearen aldeko uzi eta alegazioak azalduko ditu, edo bestela eskatuko du erreklamazioa jarritzat eman dadila eta espedientea erakutsi dakiola alegazioak egin ahal izateko.

3.- Ordezkararen bidez jarduten dutenek ordezkaria identifikatzeko datu guztiak emango dituzte eta ordezkaritza frogatzeko agiriak erantsiko dituzte.

4.- Erreklamazioa hasteko idazkiak ez baditu betetzen 1. idatzatiazian ezarritako baldintzak, edo ordezkaritza frogatzen ez bada, idazkaritzak 10 eguneko epea ezarriko du erreklamazio-egileak akatsak zuzendu edo falta diren agiriak aurkeztu ditzan, eta ohartaraziko dio hori egin ezean ez zaiola erreklamazioa onartuko eta jarduketak artxibatu egingo direla.

28. artikulua.- Erreklamazioa jartzeko epea.

1.- Egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean jarri ahal izango da haren aurkako erreklamazioa.

2.- Berraztertze errekurtsua aurkeztu bada alde zuzenetik, eta ebatzi gabe badago, administrazioaren isiltasunak ondorioak sortzen dituen egunaren biharamunetik aurrera administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahalko da, berariazko ebazpenik jakinarazten ez den bitartean.

3.- Aurreko idatz-zatian aipatu gabeko kasuetan, administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahalko da administrazioaren isiltasunak ondorioak sortzen dituen egunaren biharamunetik aurrera, kasuan kasuko arauei jarraituz.

4.- Egintza bati aurka egiteko ezarritako epean lehenik berraztertze errekurtsua eta gero administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri gero, erreklamazioa onartezina dela adieraziko da, lehenago berraztertze errekurtsua jarri delako. Beste horrenbeste egingo da biak aldi berean jartzen badira.

29. artikulua.- Espediente eskatzea.

1.- Lege eta Administrazio Erakundeari erreklamazioa aurkezteko idazkia jaso ondoren, idazkaritzak inpugnatu den administrazio-egintzaren espediente bidaltzeko eskatuko dio bulego egokiari.

2.- Una vez finalizado el procedimiento, los interesados podrán pedir el desglose y devolución de los documentos de prueba presentados por ellos durante la sustanciación de la reclamación. La Secretaría realizará las actuaciones necesarias guardando copia cotejada del documento y acreditación de la devolución.

Artículo 26.- Costas del procedimiento.

1.- El Organismo Jurídico Administrativo podrá apreciar la existencia de temeridad o mala fe del reclamante a los efectos de exigirle que sufrague las costas del procedimiento cuando se produzcan peticiones o se promuevan recursos con manifiesto abuso de derecho.

En particular podrá ser apreciada cuando se planteen reclamaciones o recursos con una finalidad exclusivamente dilatoria. Será necesario que dichas circunstancias estén debidamente motivadas.

2.- Cuando se imponga al reclamante el pago de las costas, éstas se cuantificarán atendiendo al coste medio del procedimiento, a la complejidad de la reclamación y a las circunstancias que resulten relevantes.

3.- Para el ingreso de las costas se señalará un período voluntario de pago no inferior a un mes, contado desde el día siguiente al de recepción de la liquidación. Transcurrido dicho plazo, si no se hubieran hecho efectivas, se procederá a su exacción por el procedimiento de apremio.

4.- No se impondrán las costas del procedimiento cuando la reclamación hubiese sido estimada total o parcialmente.

Sección 2ª Procedimiento general económico-administrativo

Artículo 27.- Iniciación

1.- La reclamación económico-administrativa se iniciará mediante escrito de interposición dirigido al Organismo Jurídico Administrativo de Álava y firmado, en el que se identificará al interesado, con nombre y apellidos o razón social o denominación completa y número de identificación fiscal, y se indicará el acto o la actuación contra los que se reclama y el domicilio a efectos de notificaciones.

La indicación del objeto material de la reclamación podrá realizarse mediante la aportación de copia del documento que contenga el acto o la actuación impugnados, o el recurso o la solicitud presentados en los casos de silencio administrativo.

2.- Así mismo, en el escrito de interposición el compareciente formulará cuantas pretensiones y alegaciones convengan a su derecho o solicitará que la reclamación se tenga por interpuesta y se le ponga de manifiesto el expediente para formalizar alegaciones.

3.- Cuando se actúe mediante representación, se indicará la identificación completa del representante y se acompañará además la documentación que la acredite.

4.- Si el escrito de iniciación no reúne los requisitos que señala el apartado 1, o no se acredita la representación, la Secretaría dispondrá un plazo de 10 días para que el compareciente subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con advertencia de inadmisibilidad de la reclamación y archivo de las actuaciones en caso de incumplimiento.

Artículo 28.- Plazo de interposición.

1.- La reclamación se interpondrá en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la notificación del acto impugnado.

2.- Si se hubiera interpuesto previamente recurso de reposición y éste no se hubiera resuelto, podrá interponerse reclamación económico-administrativa a partir del día siguiente a aquél en que se produzcan los efectos del silencio administrativo en tanto no se notifique la resolución expresa.

3.- En supuestos distintos al del apartado anterior, podrá interponerse reclamación económico-administrativa a partir del día siguiente a aquél en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzcan los efectos del silencio administrativo.

4.- Cuando en el plazo establecido para recurrir se hubieran interpuesto recurso de reposición y reclamación económico-administrativa contra un mismo acto, se declarará la inadmisibilidad de la reclamación si el recurso de reposición se interpuso antes. La misma declaración procederá si se hubieran interpuesto simultáneamente.

Artículo 29.- Petición del expediente.

1.- Recibido un escrito de reclamación ante el Organismo Jurídico Administrativo, la Secretaría solicitará de la dependencia que corresponda el envío del expediente que hubiera producido el acto administrativo que se impugne.

2.- Espedientea Auzitegiari bidaliko zaio hamabost eguneko epean, aurrekariak bere esku dituen bulegoko buruaren erantzukizun pertsonal eta zuzenaren pean. Epe horretan bidaltzerik ez badago, horren arrazoiak jakinaraziko dira, epe berean.

Espedientea bidali edo jasotzeko, teknika eta baliabide elektronikoa, informatiko eta telematikoak erabili ahalko dira, betiere agiriaren benetakotasuna eta osotasuna bermatuta.

3.- Aurreko idatz-zatietan aipatutako espedientean jasorik egon behar dira inpugnatutako administrazio-egintzan kontuan hartu ziren aurrekari, adierazpen eta agiri guztiak eta interesdunari horiek jakinarazi izanaren frogagiriak.

4.- Espedientearekin batera, egintza eman zen bulegoko buruaren txostena edo aurreko prozedura instruitu zuen ikuskatzailetzarena ere bidaliko da, txosten hori nahitaez eman behar den kasuetan, edo, oro har, ez badaude berriaz jasorik erreklamazioa egin zaion administrazio-egintzaren zioak edo oinarriak.

5.- Espedientea bidaltzen ez bada, Idazkaritzak berriro eskatuko du eta bost eguneko epea ezarriko du bidaltzeko, eta ohartaraziko du espedientea bidali ezean erreklamazioak aurrera egin ahalko duela interesdunak ekarritako aurrekarietan oinarrituta.

6.- Erreklamazioaren prozedura amaitu arte, Auzitegiak espedientea osatu dadila eskatu ahal izango du edonoiz.

### 30. artikulua.- Alegazioak.

1.- Espedientea jaso ondoren Idazkaritzak erakutsi egingo die erreklamazioan agertu baina alegaziorik egin ez duten interesdunei, edo alegazioak egiterakoan izapide hori berriaz eskatu dutenei. Denentzat ere espedientea hilabete egongo da ikusgai.

2.- Interesdunak alegazioetan ondokoak azalduko ditu: bere uziaren oinarri diren gertaerak, bere uziaren arrazoiak edo zuzenbideko oinarriak, 33. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkezten edo proposatzen dituen frogak, eta uzia bera.

3.- Alegazioetarako epean, interesdunak espedientea osorik ez dagoela uste badu, osatzeko eskatu ahalko du. Eskaera hori behin bakarrik egin ahalko da. Espedienteari buruzko araei jarraituz zeintzuk aurrekari gehitu behar diren azalduko da. Eskaera horrek alegazioetarako epea etengo du.

4.- Behin eskaerari ezezkoa ematen zaionean, edo eskatutako aurrekariak jasotzen direnean, edo horiek ez direla existitzen edo espedientetik kanpokoak direla esaten denean, Idazkaritzak jakinaraziko du alegazioetarako epea berriz hasi dela zenbatzen, alegia, eskaera egin zenean geratzen zen denbora igarotzen hasi dela.

5.- Halaber bidezkoa izango da alegazioen izapidea egitea, 10 egunekoak bakarrik, baldin eta alegazioak egin eta gero espedientea osatzen bada edo txostenen bat ematen bada, edo, 16. artikuluan xedatutakoarekin bat, interesdun gehiago agertzen badira.

### 31. artikulua.- Izapidetze laburtua.

1.- Erreklamazio-idazkia bera edo interesdunak aurkeztutako agiri eta aurrekariak nahikoak badira ebazpenean kontuan hartu beharreko gertaera guztiak egiaztatzeko, edo gertaera horiek egiazkotzat eman badaitezke, edo nabarmen ikusten bada erreklamazioa ez onartzeko arrazoiren bat, ez dira egin behar aurreko bi artikuluetan adierazitako izapideak.

2.- Auzitegiak, aurreko idatz-zatian xedatutakoari jarraituz, kudeaketa-espedientea aztertu gabe ematen badu erabaki edo ebazpena, berriaz azalduko du zergatik ez dituen egin aipatutako izapideak.

### 32. artikulua.- Intzidentek.

1.- Administrazioarekiko diru-erreklamazioak izapidetu bitartean azaltzen diren arazoak prozedurako intzidente gisa aztergai hartu ahal izango dira auziaren muinekoak ez izan arren auziarekin edo prozeduraren baliozkotasunarekin zerikusia dutenean, baldin eta erreklamazioa izapidetu ahal izateko ezinbestekoa bada haiek aurretik ebaztea eta auziaren muinari buruzko erabakia hartu arte itxaroterik ez badago.

2.- El expediente se remitirá al Tribunal en el término de quince días, bajo la personal y directa responsabilidad del Jefe de la dependencia en que obrasen los antecedentes. Si no pudiera enviarse en el plazo indicado, se comunicará, en el mismo plazo, las causas que lo impidan.

La remisión o la incorporación del expediente podrá efectuarse por técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos que garanticen la autenticidad e integridad de los documentos.

3.- El expediente a que se refieren los apartados anteriores comprenderá todos los antecedentes, declaraciones y documentos que se tuvieron en cuenta para dictar el acto administrativo impugnado y los justificantes de su notificación al interesado.

4.- Con el expediente se remitirá también el informe del Jefe de la Oficina en la que se dictó el acto o de la Inspección que instruyó el procedimiento antecedente cuando, en general, no consten expresamente los motivos o fundamentos que determinaron el acto administrativo objeto de la reclamación o la emisión de informe sea preceptiva.

5.- Si no se remitiese el expediente, la Secretaría reiterará la petición para su cumplimiento en un nuevo plazo de cinco días, con la advertencia de que la reclamación podrá seguir a instancia del interesado con los antecedentes que éste pueda aportar.

6.- En cualquier momento anterior a la terminación del procedimiento de la reclamación el Tribunal podrá solicitar que se complete el expediente.

### Artículo 30.- Alegaciones.

1.- Una vez recibido el expediente, la Secretaría lo pondrá de manifiesto a los interesados que hubieran comparecido en la reclamación y no hubiesen formulado alegaciones o las hubiesen formulado pero con la solicitud expresa de este trámite, por plazo común de un mes.

2.- Con las alegaciones se expresarán los hechos en que el interesado basa su pretensión, los motivos o fundamentos jurídicos de la misma, las pruebas que aporta o propone de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 33 y la pretensión correspondiente.

3.- Si durante el plazo de alegaciones el interesado estimase que el expediente está incompleto podrá solicitar que se complete. La petición, que podrá formularse una sola vez, detallará los antecedentes que deban integrar el expediente conforme a las normas que lo regulan. La petición suspenderá el plazo del trámite de alegaciones.

4.- Denegada la petición, o recibidos los antecedentes o la declaración de que éstos no existen o de que no forman parte del expediente, la Secretaría notificará la reanudación del plazo de alegaciones por el tiempo que quedara en el momento de la solicitud.

5.- Igualmente procederá un trámite de alegaciones, reducido a 10 días, cuando después de formuladas se haya completado el expediente o emitido un informe o cuando de conformidad con lo dispuesto en el artículo 16 se hayan personado otros interesados.

### Artículo 31.- Tramitación abreviada.

1.- Si del propio escrito de interposición o de los documentos o antecedentes aportados por el interesado resultan acreditados todos los hechos necesarios para resolver o éstos pueden tenerse por ciertos, o cuando de aquéllos resulta evidente un motivo de inadmisibilidad, se podrá prescindir de los trámites señalados en los dos artículos precedentes.

2.- Si conforme a lo dispuesto en el apartado anterior el Tribunal dicta acuerdo o resolución sin haber examinado el expediente de gestión, motivará expresamente la omisión de los aludidos trámites.

### Artículo 32.- Incidentes.

1.- Podrán plantearse como incidentes aquellas cuestiones que se susciten durante la tramitación de las reclamaciones económico-administrativas y se refieran a extremos que, sin constituir el fondo del asunto, estén relacionadas con el mismo o con la validez del procedimiento y cuya resolución sea requisito previo y necesario para la tramitación de la reclamación y no pueda aplazarse hasta que recaiga acuerdo sobre el fondo del asunto.

2.- Intzidentek aurkeztu ahalko dira, halaber, etendura-eskaerak izapidetzeko onartzen ez dituzten ebazpenen kontra, edo bide ekonomiko-administratiboan inpugnaturiko egintzen betearazpenaren etendura ukatzen duten ebazpenen kontra, ebazpen horiek araudi honen 18. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako organoek emanak badira.

3.- Betearazpen-intzidentek araudi honen 41. artikuluan xedatutakoaren bidez arautuko dira.

4.- Intzidentea 15 eguneko epean aurkeztu behar da, bera eragin duen gertaera edo egintza modu sinesgarrian jasorik geratzen den egunaren biharamunetik hasita.

5.- Aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan adierazitako kasuetatik kanpoko intzidentek erabat baztertuko dira, baina arazoa berriro aurkeztu ahal izango da, erreklamazioari amaiera ematen dion erabaki edo ebazpenaren aurkako errekurtsioa egiten denean.

6.- Intzidenteari amaiera ematen dion ebazpenari ezin izango zaio errekurtsorik jarri administrazio-bidean.

33. artikulua.- Frogak eta txostenak.

1.- Prozedura ekonomiko-administratiboetan, Kode Zibilean eta Prozedura Zibileko Legean frogabideez eta frogaren balioespenaz ezarritako arauak aplikatuko dira, berariazko arautegian besterik ezarri ezean.

2.- Frogak, funtsean, agiri bidezkoak izango dira. Dena dela, auziaren izaeratik hala behar denean, peritu bidezko frogak, lekuko bidezko frogak edo aldean adierazpenak balioetsi ahal izango dira.

3. Interesdunek, espedientearen osatzeko, euren idazkiekin batera irizpen teknikoak eta, oro har, euren eskubidearen aldekoak izan daitezkeen agiri publiko edo pribatu guztiak aurkeztu ahalko dituzte, eta Auzitegiak horien frogagarritasuna aintzat hartu ahalko du prozedura amaitzen duen ebazpena ematerakoan.

Eztabaidatzen diren auziak ezagutzeko balio ez duten gertaeren inguruko frogak ez dira aztertuko ebazpen horretan, aipatu baino ez dira egingo.

4.- Interesdunek, gainera, erreklamazioa ebazteko kontuan hartu beharreko dokumentuzko frogak proposatu ahalko dituzte, eurek ezin aurkeztu badituzte, eta non dauden adieraziko dute, bidezkoa izanez gero.

5.- Idazkariaren ebazpenen bidez, proposatutako frogak ez dira onartuko, edo ukatu egingo dira, zilegi ez direnean, edo aurkeztutako uziei buruzko erabakia hartzerakoan kontuan hartu beharrekoak ez diren gertaerei dagozkienean, edo espedientearen dauden datuez bestelakorik eskaintzen ez dutenean.

6.- Auzitegiak frogetarako 10 eguneko epea ezarri ahalko du, interesdunek frogatu ahal ditzaten alegatu dituzten gertaerak, administrazio-espedientearen bidez ezin frogatu badira.

Halaber, ofizioz, erreklamazioa ebazteko beharrezkotzat jotzen diren frogak egitea erabaki ahalko du.

7.- Erreklamazioaren espedientearen, ofizioz egindako frogaren emaitza gehituta, interesdunen eskura jarriko da, 10 eguneko epean alegazioak egin ditzaten.

8.- Aurreko 5. eta 6. idatz-zatietan aipatutako ebazpen eta erabakiak izapidetzeko egintzak dira eta ezin zaie errekurtsorik egin.

9.- Auzitegiak erreklamazioa ebazteko beharrezko edo komenigarritzat jotzen dituen txostenak eskatu ahalko dizkie inpugnaturiko egintza eman zuen organoari edo beste administrazio-organotzatuzuei.

Hori eginez gero, erreklamazioaren espedientearen interesdunen eskura jarriko da, 10 eguneko epean egokituz jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

10.- Ebazpena jakinarazteko epea zenbatzerakoan ez da kontuan hartuko aurreko idatz-zatian aipatutako txosten horiek bidaltzeko beste administrazio-organotzatuzuek behar duten denbora. Epearen zenbaketan kontuan hartuko ez diren aldiak bi hilabetekoak izango dira gehienez.

34. artikulua.- Froga egitea.

1.- Idazkariak, behar beste denbora lehenago, onartutako edo ofizioz erabakitako frogak egiteko jarduketan hasiera jakinaraziko die prozeduran agertutako interesdun guztiei.

2.- Igualmente podrán plantearse incidentes contra las resoluciones que inadmitan a trámite las solicitudes de suspensión o que denieguen la suspensión de ejecución del acto impugnado en vía económico-administrativa dictadas por los órganos a los que se refiere el apartado 2 del artículo 18 de este Reglamento.

3.- Los incidentes de ejecución se regirán por lo dispuesto en el artículo 41 de este Reglamento.

4.- Los incidentes se plantearán en el plazo de 15 días contados a partir del siguiente a aquél en que se tenga constancia fehaciente del hecho o acto que los motive.

5.- Se rechazarán de plano los incidentes cuando no se hallen comprendidos en los apartados 1 y 2 anteriores, sin perjuicio de que la cuestión pueda plantearse de nuevo al formular el recurso procedente contra el acuerdo o la resolución que ponga término a la reclamación.

6.- La resolución que ponga término al incidente no será susceptible de recurso en vía administrativa.

Artículo 33.- Pruebas e informes.

1.- En los procedimientos económico-administrativos serán de aplicación las normas que sobre medios y valoración de prueba se contienen en el Código Civil y en la Ley de Enjuiciamiento Civil, salvo que la normativa específica establezca otra cosa.

2.- Las pruebas serán fundamentalmente documentales. No obstante, cuando la naturaleza del caso lo requiera, podrán valorarse pruebas periciales, testificales o declaraciones de parte.

3. Los interesados podrán completar el expediente acompañando a sus escritos dictámenes técnicos y, en general, todos los documentos públicos o privados que puedan convenir a su derecho, cuya fuerza de convicción será apreciada por el Tribunal al dictar la resolución que ponga fin al procedimiento.

Dicha resolución no entrará a examinar las pruebas aportadas relativas a hechos que no sean relevantes para el conocimiento de las cuestiones debatidas, bastando con su enumeración.

4.- Los interesados podrán proponer, además, aquellas pruebas documentales que sean relevantes para la resolución de la reclamación y que les resulten de imposible aportación, señalando, en su caso, el lugar donde se encuentren.

5.- Mediante resolución del Secretario se inadmitirán o denegarán las pruebas propuestas cuando sean ilícitas, se refieran a hechos que no guarden relevancia para la decisión de las pretensiones ejercitadas o no aporten datos distintos a los ya obrantes en el expediente.

6.- El Tribunal podrá acordar la apertura de un período de prueba por plazo de 10 días, a fin de que los interesados acrediten los hechos alegados que no resulten del expediente administrativo.

Asimismo podrá, de oficio, acordar la práctica de las pruebas que estime oportunas para la resolución de la reclamación.

7.- El expediente de la reclamación, con el resultado de las pruebas acordadas de oficio, se pondrá de manifiesto a los interesados para que dentro de un plazo de 10 días puedan concluir alegaciones.

8.- Las resoluciones y los acuerdos a los que se refieren los apartados 5 y 6 tendrán carácter de actos de trámite y contra ellos no se dará recurso.

9.- El Tribunal podrá requerir los informes que considere necesarios o convenientes para la resolución de la reclamación, al órgano que dictó el acto impugnado o a otros órganos administrativos.

En este supuesto, se pondrá de manifiesto el expediente de la reclamación a los interesados para que en un plazo de 10 días aleguen lo que estimen procedente.

10.- A los efectos del plazo máximo para notificar la resolución, no se incluirá el período empleado por otros órganos administrativos para remitir los informes a que hace referencia el apartado anterior. Los períodos no incluidos en el cómputo del plazo no podrán ser superiores a dos meses.

Artículo 34.- Práctica de la prueba.

1.- El Secretario notificará a todos los interesados personados en el procedimiento, con antelación suficiente, el inicio de las actuaciones necesarias para la práctica de las pruebas admitidas o acordadas de oficio.

2.- Frogak non, zein egunetan eta zein ordutan egingo diren jasoko da jakinarazpenean, eta ohartaraziko, hala badagokio, interesdunek teknikariak izenda ditzaketela lagundu diezaieten.

3.- Idazkariak aktan jasoko ditu froga egiteko jarduketa guztiak, eta akta interesdun guztien eskura jarriko da, 10 eguneko epean alegazioak egin ditzaten.

4.- Interesdunek proposaturiko frogak gastuak eragiten dituztenean, Auzitegiak aurrez ordaintzeko eskatu ahalko die, frogaren ondoren egingo den behin betiko likidazioaren kontura.

35. artikulua.- Berrikuspenaren mugak.

1.- Administrazioarekiko diru-erreklamazioek Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen esku jartzen dituzte, ebatz ditzan, espedientetik atera daitezkeen egitatezko eta zuzenbidezko arazo guztiak, interesdunek aurkeztutakoak izan edo ez. Ebazpenak ez du inola ere okerrera eramango erreklamazioaren hasierako egoera.

2.- Auzitegiak, uziari buruz erabakitzeke, beharrezkotzat jotzen badu interesdunek aurkeztu ez duten arazoren bat aztertu eta ebaztea, prozeduran agertu direnei arazo hori azalduko die eta 10 eguneko epea emango die alegazioak egiteko.

36. artikulua.- Prozedura amaitzea.

1.- Prozedura amaituko da erreklamazioaren oinarri den eskubideari uko egiteagatik, erreklamazioan atzera egiteagatik, auzialdia irauzgitzeagatik, prozesuz kanpoko konponketagatik, prozesua aurrera eramateko ezintasun material eta ezustekoagatik eta ebazpenagatik.

2.- Erreklamazioak uko egiten badu edo atzera egiten badu, auzialdia irauzgitzen bada, auzia prozesutik kanpo konpontzen bada, edo prozedura aurrera eramateko ezintasun material eta ezustekoa gertatzen bada, jarduketak artxibatzea erabakiko da.

37. artikulua.- Ebazpena.

1.- Ebazpenetan aurrekariak eta zuzenbidezko oinarriak jasoko dira eta espedientearen ildotik sortutako arazo guztiak ebatziko dira.

2.- Ebazpena baiestekoa, ezestekoa edo onartezintasuna deklaratzekoa izan daiteke. Ebazpena baiestekoa izanez gero, inpugnatutako egintza osorik edo zati batean deuseztatu ahal izango da, funtsezko oinarriak edo formazko okerrak direla medio.

3.- Ebazpenean erreklamazioa babesteko aukerak murrizten dituen formazko akatsen bat antzematen bada, edo Auzitegiak ez badu bidezkotzat jotzen auziaren muinari buruz ebaztea, egintza deuseztatu egingo da akatsa duen zatian, eta jarduketetan atzera egiteko aginduko da, formazko okerra gertatu zen unera itzultzeko.

4.- Erreklamazioa onartezina dela deklaratu da jarraiko kasu hauetan:

a) Bide ekonomiko-administratiboko erreklamaziorik ezin jarri zaien egintzak edo jarduketak inpugnatzen direnean.

b) Erreklamazioa zein egintza edo jarduketaren aurka jartzen den adierazten ez denean.

c) Uziaren eta errekurritutako egintza edo jarduketaren arteko loturarik ez dagoenean.

d) Uzia ez bazaio alde zuzenetik aurkeztu administrazio esku-dunari.

e) Erreklamazioa epez kanpo aurkezten denean.

f) Legitimazio edo ordezkaritza akatsak daudenean.

g) Auzitegiak eskumenik ez duenean.

h) Erreklamazioa jarri zaion egintzaren oinarri bakarra beste egintza irmo eta onartu bat denean; lehenagoko egintza irmo eta behin betikoekin berdinak diren egintzak errekurritzen direnean; onartutako beste egintza batzuk berresten dituzten egintzak errekurritzen direnean; eta gauza epaitua dagoenean.

38. artikulua.- Ebazteko epea.

1.- Administrazioarekiko diru-erreklamaziorik amaiara ematen dion erabaki edo ebazpena urtebeteko epean jakinaraziko da, erreklamazioa jartzen denetik hasita. Epea zenbatzean ez dira kontuan hartuko Auzitegiari ezin egotzi zaizkien atzerapenen ondoriozko

2.- En la notificación se consignará el lugar, fecha y hora en que se practicarán, con la advertencia, en su caso, de que los interesados pueden nombrar técnicos que les asistan.

3.- Todo lo actuado durante la práctica de la prueba se recogerá en acta levantada por el Secretario, que se pondrá de manifiesto a todos los interesados para que en el plazo de 10 días puedan concluir alegaciones.

4.- En los casos en los que, a propuesta de los interesados, deban practicarse pruebas cuya realización implique gastos, el Tribunal podrá exigir su anticipo, a reserva de la liquidación definitiva una vez practicada la prueba.

Artículo 35.- Extensión de la revisión.

1.- Las reclamaciones económico-administrativas someten a conocimiento del Organismo Jurídico Administrativo de Álava, para su resolución, todas las cuestiones de hecho y de derecho que ofrezca el expediente, hayan sido o no planteadas por los interesados. La resolución en ningún caso podrá empeorar la situación inicial del reclamante.

2.- Si el Tribunal estima pertinente examinar y resolver cuestiones no planteadas por los interesados pero necesarias para decidir sobre la pretensión, las expondrá a los que estuvieran personados y les concederá un plazo de 10 días para que formulen alegaciones.

Artículo 36.- Terminación.

1.- El procedimiento finalizará por renuncia al derecho en que la reclamación se fundamenta, por desistimiento de la reclamación, por caducidad de la instancia, por satisfacción extraprocesal, por imposibilidad material y sobrevinida de continuarlo y por resolución.

2.- Cuando se produzca la renuncia o el desistimiento del reclamante, la caducidad de la instancia, la satisfacción extraprocesal o la imposibilidad material y sobrevinida de continuar el procedimiento, se acordará el archivo de las actuaciones.

Artículo 37.- Resolución.

1.- Las resoluciones contendrán los antecedentes de hecho y los fundamentos de derecho en que se basen y decidirán todas las cuestiones que se susciten en el expediente.

2.- La resolución podrá ser estimatoria, desestimatoria o declarar la inadmisibilidad. La resolución estimatoria podrá anular total o parcialmente el acto impugnado por razones de derecho sustantivo o por defectos formales.

3.- Cuando la resolución aprecie defectos formales, y se hayan disminuido las posibilidades de defensa del reclamante o el Tribunal no estime procedente resolver sobre el fondo del asunto, se producirá la anulación del acto en la parte afectada y se ordenará la retroacción de las actuaciones al momento en que se produjo el defecto formal.

4.- Se declarará la inadmisibilidad en los siguientes supuestos:

a) Cuando se impugnen actos o actuaciones no susceptibles de reclamación en vía económico-administrativa.

b) Cuando falte la identificación del acto o actuación contra el que se reclama.

c) Cuando la pretensión no guarde relación con el acto o actuación recurridos.

d) Cuando la pretensión no haya sido planteada con anterioridad ante la Administración competente.

e) Cuando la reclamación se haya presentado fuera de plazo.

f) Cuando concurren defectos de legitimación o de representación.

g) Cuando el Tribunal resulte incompetente.

h) Cuando exista un acto firme y consentido que sea el fundamento exclusivo del acto objeto de la reclamación, cuando se recurra contra actos que reproduzcan otros anteriores definitivos y firmes o contra actos que sean confirmatorios de otros consentidos, así como cuando exista cosa juzgada.

Artículo 38.- Plazo de resolución.

1.- El acuerdo o la resolución que ponga término a la reclamación económico-administrativa se notificará en un plazo máximo de un año contado desde la interposición de la reclamación. A estos efectos no se computarán las interrupciones por dilaciones no impu-

etenaldiak. Hori dela eta, nahikoa izango da epearen barruan jakinarazpenak egiteko ahaleginak egin direla frogatzea.

2.- Aurreko idatz-zatian aipatutako epea igarotakoan, interesdunak erreklamazioa ezetsizat jo ahalko du, eta bidezkoa den errekurtsoa jarri. Nolanahi ere Auzitegiak berriazko ebazpena eman behar du.

39. artikulua.- Deuseztatzeko errekurtsoa.

1.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik eta hori aurkezteko epea ezertan aldatu gabe, deuseztatzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lege eta Administrazio Erakundeari, 15 eguneko epean, baina honako kasuetan bakarrik:

a) Erreklamazioa onartezintzat jotzeko erabakia behar ez bezala ematen denean.

b) Behar bezala aurkeztutako alegazioak eta frogak existitzen ez direla adierazten denean.

c) Ebazpenaren inkongruentzia osoa eta nabaria dagoela alegatzen denean.

d) Erreklamazioa artxibatzea erabakitzen denean, erreklamazioa ezin izan delako egin edo atzera egin duelako, auzialdia iraungi delako, auzia prozesuz kanpo konpondu delako edo prozeduran aurrera jarraitzeko ezintasun material eta ezustekoa sortu delako.

2.- Errekurtso-idazkian alegazioak jasoko dira eta bidezko frogak erantsiko dira.

3.- Auzitegiak hilabeteko epean ebatziko du beste izapiderik gabe. Erabaki edo ebazpenik jakinarazi ezean, epea igarotakoan errekurtsoa ezetsizat jo ahalko da.

4.- Deuseztatzeko errekurtsoaren ondorioz ematen den erabaki edo ebazpena inpugnatu egin daiteke, erreklamazioari amaiera eman zion erabaki edo ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa egiten denean.

Bereiz ere inpugnatu ahal izango da, erreklamazioari amaiera eman zion erabaki edo ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea igaro eta gero jakinarazten bada.

40. artikulua.- Ebazpenaren ondorioak.

1.- Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpen irmoak ezin izango dira administrazio-bidean berrikusi, alegatzen den arrazoia edozein izanda ere, ez bada prozedura hauetakoren bat erabiltzen: zuzenbide osoz deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura berezia, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 224. artikuluan ezarritakoa; berrikusteko errekurtso bereziaren prozedura, eta akats materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko prozedura, biak ere araudi honen III. artikuluan jasoa.

2.- Epai irmoaren bidez berretsita daudenak ezin izango dira inola ere berrikusi.

3.- Administrazioarekiko diru-erreklamazioen ebazpenak ezarritako epean betearaziko dira, euren epemugak izango dituzte eta horiek ezin izango dira berriro eztabaidatu.

4.- Egintzaren betearazpena etetea erabakitzen bada administrazio-bidean, eta beste auzialdi batzuetan ere etendurari eusten bazaio, ez da aplikatuko aurreko idatz-zatian betearazpenari buruz ezarritakoa.

5.- Ebazpenak betearazi behar dituzten organoek ebazpena argitzeko eskatu ahalko diote Lege eta Administrazio Organoari.

6.- Betearazpenaren ondoriozko egintzak interesdunei jakinaraziko zaizkie hilabeteko epean, ebazpena sail edo organo betearazlearen erregistroan sartzen denetik aurrera. Egintza horiek jakinarazten direnean, hurrengo artikuluko 1. eta 5. idatz-zatietan xedatutakoaren berri emango da.

7.- Erreklamazioa baietsi eta interesdunari diru kopururen bat itzuli behar bazaio, berandutza-korrituak kobratzeko eskubidea izango du.

8.- Ebazpenean erreklamazioa osorik edo zati batean baietsi eta beste likidazio bat egin behar denean, deuseztatzeko kausak ukitzen ez dituen egintzei eutsi egingo zaie, berandutza-korritu egokiak aplikatuko zaizkie ordaindutako zenbatekoari, halakorik badago, eta

tables al Tribunal y será suficiente acreditar que dentro de dicho plazo se ha intentado notificar.

2.- Transcurrido el plazo a que se refiere el apartado anterior, el interesado podrá considerar desestimada la reclamación al objeto de interponer el recurso procedente, sin perjuicio de la obligación del Tribunal de resolver expresamente.

Artículo 39.- Recurso de anulación.

1.- Con carácter previo, en su caso, a la interposición del recurso contencioso-administrativo, y sin que se altere el plazo de interposición de éste, podrá interponerse ante el Organismo Jurídico Administrativo recurso de anulación, en el plazo de 15 días, exclusivamente en los siguientes casos:

a) Cuando el recurso se fundamente en la incorrecta inadmisibilidad de la reclamación.

